



## PRENTSA-OHARRA



### AZKUNA ZENTROA - ALHONDIGA BILBAOK MANU MUNITEGIANDIKOETXEAREN PIEZA BERRIA AURKEZTU DU TERRAZAN

- *Schola Navicolare di Traiano* instalazioan hiru dimentsioko egiturak sortu ditu, Ostiako zoladuren gainean dauden lan-mahaiak gogora ekartzen dituztenak
- Euskal artistaren esku-hartze konstruktibo-piktoriko honek Azkuna Zentroko udako programazioaren parte da

Bilbo, 2024ko uztailaren 3an. Manu Muniategiandikoetxea artista bisualak *Schola Navicolare di Traiano* aurkeztu du Azkuna Zentroa – Alhondiga Bilbao, Bilboko

Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroko terrazan, irailaren 29ra arte zabalik egongo dena.

Esku-hartze konstruktibo-piktoriko hau Erromako Espainiako Akademian izandako egonaldian garatu duen *Gigantomaquia* proiektuan oinarritua dago. *Schola Navicolare di Traiano* lanean, hiru dimentsioko egiturak sortu ditu terrazarako, Ostiako zoladuren gainean dauden lan-mahaiak gogora ekartzen dituztenak. Horien gainean, trama geometrikoen txantiloiekin egindako margolan batzuk daude.

Multzoak prozesuan egindako esku-hartze bat erakusten du, nola egiten den eta jatorria zein den azaltzeko. Proiektua amaitu gabe dago, eta piezak beti ari dira garatzen. Estudioaren ideiarekin eta testuinguruaren garrantziarekin ere jolasten du artistak, eta obraren kontzeptua zabaltzen du bere ekoizpen-ingurune osora. Mahaia, bilbeak, txantiloiak, astoa, testua eta mihisea bera lanerako eta sorkuntzarako elementuak dira.

Artistak eraikuntza eta eredu geometrikoekiko interesa du, eta, obra berriak egiteko, Ostia Antica-ko —Erromako portu zaharreko— Parke Arkeologikoko eraikinen zoladura geometrikoetan inspiratu da. Zehazki, Schola di Traiano-ko (III. mendea) Oturuntza Aretoan, itsas eraikitzaileen eskolan, dauden horietan.

### **Udako programa Azkuna Zentroan**

Instalazio berri honek bat egingo du uda honetan Azkuna Zentroan ikusgai izango diren erakusketa-proiektuekin. Zentroak dei egiten die ikus-entzuleen komunitateei hilabete hauetan bisita lasaiagoa eta gogoetatsuagoa egin dezaten, bisita gidatuen, audiogiden edo jarduera osagarrien programaren bidez.

#### **1- Allora & Calzadilla: KLIMA**

KLIMA erakusketak nazioarteko arte garaikidean erreferente diren Jennifer Allora eta Guillermo Calzadillaren azken lana jarri du ikusgai Erakusketa Aretoan. Bikote kolaboratibo honek mundu osoko museoetan ikusgai egon den lan esperimentalak garatu du.

Erakusketa honetan artisten jardun diziplinartekoa eta kolaboratiboa gailentzen da, baita obra osoan dauden gaiak ere: denbora geologikoa eta Lurreko bizitzaren bilakaeraren historia, izaera postkoloniala, ingurumen-arloko justizia eta zor klimatikoa, geopolitika eta energia-iturriak.

Erakusketa honek ostegunero aktibatzen diren *performanceen* programazioa du.

#### **2- Ana G. Lartitegi. Tentelontzia. Ipuin Ibilaldi bat pintura flandestarrarekin elkarrizketan**

Tentelontzia. Ipuin ibilaldi bat pintura flandestarrarekin elkarrizketan erakusketa bihurtutako ilustrazio-liburu bat da.

Proiektuan, Ana González Lartitegui artista bilbotarrak bere azken lanerako sortutako akuarela originalak daude ikusgai: Tentelontzia, gaztelaniaz, euskaraz, katalanez eta galegoz argitaratua.

Erakusketan, liburu-album honetako testuaren eta narrazio grafikoaren sortze prozesua erakusten da.

### **3- Elena Aitzkoa *Ur Aitzak***

Elena Aitzkoa artistak azken bi urteetan Azkuna Zentroko artista AZkide gisa sortutako Ur Aitzak izeneko eskultura-multzoa du erakusgai Atarian. Aldi berean, Ataria bere tailerra eta erakusketa-gunea izan da, Zentroaren eta bertatik igarotzen diren pertsonen bizitzaren parte.

Elena Aitzkoak haiekin partekatu ditu prozesuaren xehetasunak, erabilitako teknikak edo pieza bakoitzarekin batera doazen poemak.

Atarian dagoen Iparragirre Aretoan, Elena Aitzkoaren sormen-prozesua eta Azkuna Zentroan kokatzeko modua erakusten duen bideoan proiektatzen da.

### **4- Manu Muniategiandikoetxea *Schola Navicolare di Traiano***

Gaur inauguratu den Manu Muniategiandikoetxearen instalazioak osatzen du Zentroaren erakusketa-eskaintza.

*Schola Navicolare di Traiano* bere praktika piktoriko eta eskultorikoa, pertsonen eta espazioaren arteko interakzioarekiko interesa eta amaitu gabearren kontzeptua uztartzen ditu.

Hori guztia osatzeko, Mediateka UDAN, esperimentaziora bideratutako jardueren programa, haurrak Zentroko kultura-programazioarekin konektatuz jolasaren, irakurketaren, hitzaren eta sorkuntzaren bidez. Saioetan, arte garaikidearekin lotutako hainbat praktika txandakatzen dira, 6 eta 12 urte bitarteko haurren sormena eta pentsamendu kritikoa indartzeko.

Zinema ez da gelditzen udan ere. Uztailaren 5etik abuztuaren 15era, Udako Golem Verano zikloan, Aki Kaurismäki zuzendari finlandiarraren inguruko programazioa izango dugu, jatorrizko bertsioan azpituluekin.

Gainera, tokiko artisautza edo diseinua ezaugutu daiteke dendAZ. This is Basque Design, Azkuna Zentroko dendan, non tokiko diseinua, artisten produktuak eta argitalpenak aurki daitezkeen.



### **Manu Muniategiandikoetxea**

Manu Muniategiandikoetxea (Bergara, 1966) azken bi hamarkadetako euskal artearen figurarik garrantzitsuenetako bat da. Margolaria eta eskultorea da, eta bi diziplinen arteko lotura aurkitzen du, egitura fisikoa, materiala, keinua eta adierazpen piktorikoa gainjarriz. Ateak, leihoak eta aulkiak erabiltzen ditu espazio- eta bolumen-ariketa arinak egiteko.

### **Erakusketak**

#### **Banakakoak**

*Ni ez nain hemengoa.* Rekalde Aretoa, 2004

*Baga biga higa.* CAB, Burgosko Kutxaren Arte Zentroa, 2007

*Behar Gori Primavera Azul.* Koldo Mitxelena Kulturunea, 2008

*Night Flight.* Murtziako La Conservera, 2010

*Interpretaciones 7.* Jorge Oteiza Fundazio Museoa, 2014

*Eraztunak, anillos.* Espacio mínimo, 2022

#### **Kolektiboak**

*Pintura Mutante.* MARCO, Arte Garaikidearen Museoa, 2006

*Planes futuros.* Baluarte, 2007

*Zeru Bat, Hamaika bide. Prácticas artísticas en el País Vasco entre 1977 y 2002.* Artium, 2020

*Processi 150.* Erromako Espainiako Akademia, 2023

#### **Feriak**

ARCO, Frieze Art Fair, Art Basel Miami Beach.

#### **Sariak**

Caja Madrid-en 2000ko Generación Lehen Saria

Eusko Jaurlaritzaren 2000ko Gure Artea Saria

2001eko Endesa Beka



**AZKUNA ZENTROA  
ALHÓNDIGA BILBAO**

**Bilbao**

2005eko Altadis Beka

2022ko Erromako Espainiako Akademiaren Beka

**Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak**

---

[prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)

Tels. +34 648 773 373